



BERREKIPAMENDUA – 2014

ZIRKULAR INFORMATZAILEA - IRAILA

- Bide desberdinez informatu zen bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) eta Gipuzkoako Mendizale Federaziaren (GMF) arteko hitzarmena sinatu ondoren, Gipuzkoako 25 eskalada-eskoletako berrekipamendu egitasmoa martxan dago.
- Bertan esku-hartzeko adal batzuen baimenak lortu ondoren uztailaren 17an hasi ziren lanean lau ekipatzaile lan kontratu pean.
- Orain arte dauden **eskalada bide guztien %15 berritu da**, ondatutako materialak berrieekin aldatuz. Hain zuzen ere, honako eskola hauek landu dira: **Arkale, Arritxulegi, Aiako Harria-Muganix, Amasola-Leitzarán, Garagartza eta Zazpi Iturri. Santa Barbarako zatirik handiena landu da**, Tailandia gunea falta delarik. Egun bakar batzuen buruan bukatuko da. **Eskalada bide guztien %40 berrekipatzeko asmoa dago.**
- GFAk babestutako espezieak zehazteko eskola guztietako azterketa egin ondoren, **babes iraunkorra duten hegaztien kumatze inguruetik pasatzen ziren bi eskalada guneetako bideak detektatu ziren. Foru dekretuz debekatuta dago eskalatzea bide hauetan. Hori horrela, anklaje guztiak jaso eta xafla informatiboa jarri dira. Aiako Harriko Parke Naturaleko Txurumurru eta Araotzeko Gailur Goikoa guneak dira. Existitzen diren bide guztietatik bakarrik %2,7 da. Aurreko batean informatu zen bezala, GFAk orokorrean ez du asmorik eskalada debekatzeko, espezie mehatxatu zehatz batzuen behar eta bizi-zikloaren arabera erregulatzea baizik. Guztion kolaborazioa ezinbestekoa da. **Eskalatzaileek, eskalada naturaren babesarekin bateragarria dela froga dezakete.****
- GMFren webgunean gabeziak jakinerazteko buzoia ireki da. Horren bitartez, eskalatzaileek sarri erabiltzen duten eskolan egoera txarreko edozertaz (hondatutako anklajea, harkaitz ezegonkorra, etab.) ezagutarazi diezagukete. Honez gero ekarpen batzuk jaso ditugu. Denon mesederako izango den laguntza lagun honekiko gure eskerrona plazaratu nahi dugu. **Esteka: <http://www.gmf-fgm.org/Eskalada-eskolak--hutsetarako-buzoia/>**
- Eskolak kokatzen diren tokian lanak egiteko lurren jabeen baimenak lortzea uste baino konplexuago gertatzen ari da. Arrazoi honengatik egitasmoa bukatzeko epea luzatuko da. Ez dugu lortu baimen gehiagorik oraingoz. Beraz, Santa Barbara bukatutakoan lanek eten egingo dute aldi batez, ahalik eta laburrena.
- La Caixa eta Helvetiarekin lankidetzak akordioa lortu dugu. Publizitatearen bitartez, urteroko ekarpen emango digute, denboraldi bakoitzean egin beharko den mantenimendu programatua bermatzeko, berez GFAk jarri beharko lukeen kopurua gutxitzeko.



Donostia, 2014ko irailaren 10ean